Cáritas

KANPAINA LANTZEKO ORIENTABIDEAK



PERTSONAK DAUDEN ARTEAN, ITXAROPENA IZANGO DA

Karitatea, eskuzabaltasuna edo, besterik gabe, gizatasuna dei diezaiokegu.
Laguntzea barruan daramagu.

Lagundu eta egin dezagun posible mundu hobe bat.

Elizan, aparteko grazia urtea bizi dugu. Frantzisko aita santuak Itxaropenaren Jubileua bizitzeko deia egin zigun, berritze espiritualerako garaia, eta Jesus gurutziltzatu eta piztuaren maitasunetik sortzen den itxaropenaren lekuko izateko aukera berdingabea.

Pertsona on guztientzako gonbidapen irekia eta unibertsala da, itxaropen beteko erromes gisa bidean jarri eta bizitzari zentzua aurkitu diezaiogun, gizakiak garen aldetik, geure arteko harremanak bultzatuz, justizian eta pertsona guztien duintasunean oinarritutako senidetasun eta elkartasunetik. Jarrera hori, hain zuzen, karitatean gauzatzen da, maitatzeko modu horizontal eta doakoan, eta bere adierazpen gorena Jainkoaren gogokoenetan du, gure historiako behartsu eta zaurgarrienetan.

Caritasetik, itxaropeneko erromesaldi horrekin bat egiten dugu urteroko Karitate Kanpainaren bitartez, eta zeinu, keinu eta ekimen hurbilak eta agerikoak egiten ditugu, Caritasetik laguntzen eta zerbitzatzen ditugun pertsonei eta Elizako eta gizarteko gainerako kideei bizitza berria eta konfiantza emango dietenak. Zeinu horietako bat, hain zuzen, laguntzen ditugun pertsonak eta haien bizi-errealitatea ikusaraztea da, bai eta pertsona guztien giza duintasunaren defentsan dugun konpromisoa agerian jartzea ere.

“PERTSONAK DAUDEN ARTEAN, ITXAROPENA IZANGO DA” leloaren bidez, itxaropena gizaki bakoitzaren baitan dagoela azpimarratu nahi dugu, pertsona guztiok baikara Jainkoak sortuak, Hark maitatu gintuen lehenbizi. Kristau-itxaropenak dohain bat, jasotzen dugun grazia bat, **senidetasun- eta elkartasun-hazien** forma hartzen du pertsona bakoitzarengan, eta hazi horiek eguneroko keinu eta ekintza txikien forman ernetzen dira, besteengan itxaropena zabaltzeko.

Gatazka armatuak, diskurtso apokaliptikoak eta gorrotoa nagusi diren garai honetan, **bihotza birbideratu** behar dugu, itxaropenak dakarkigun berritasun profetikoaz jabetzeko: ongiaren, maitasunaren eta senidetasunaren giza desira eta itxaropen sakona.

Jar diezaiogun arreta munduan dagoen ongiari, negatibotasunaren eta gaizkiaren tentazioak arrastaka eraman ez gaitzan. **Pertseberatzeko, konfiantza izateko, sinesteko eta maitatzeko garaia da**.

Garai hauetan, behar-beharrezkoa dugu berriro ere bizitzaren bilakaeran itxaropena eta konfiantza izatea. Zientziaren eta teknologiaren aitzinamenduak eta aurrerapenak ongizate sozial eta giza ongizate hobea ziurtatzen dizkigute aurreko garaiekin alderatuta, baina pertsonok, Lurrean bizi garen gizakiok, bizi dugun gizarte-errealitatea gero eta hauskorragoa eta ahulagoa da. Planetako hainbat puntutan exodo masiboak gertatzen ari dira, lurralde batzuetako populazio osoak hustea ekarri dutenak, eta pertsonak egurats gorrira kanporatu dira, inongo parte sentitzearen zentzua ere galtzen den eremu babesgabeetara. Bizitzeko baliabiderik ez izateak eragin ditu exodo horiek, muturreko indarkeria-egoerek edo egunetik egunera gero eta erasokorragoak eta nahasiagoak diren klima-hondamendiek, eta migrazio-mugimendu handiak eragiten ari dira, estatuek bideratu eta kudeatu ezin dituztenak.

Europako herrialde askotan eta, bereziki, gure herrialdean, etxebizitza eskuratzeko problema orokorra gizarte-larrialdiko arazo bihurtu da pertsona pobreenentzat, ia ezinezkoa baita haientzat etxebizitza duin bat eskuratzea.

Enplegua lortzeko aukerak, garapen pertsonala duindu eta, gazteenen kasuan, bizi-proiektuak hasteko aukera errazten dutenak, ez dira inola ere berdinak baliabide gutxien dituzten eta zaurgarrienak diren pertsonentzat.

Gure herrialdera iristen diren migratzaileek zailtasun ekonomiko eta sozial handiei egin behar diete aurre, eta zailtasun horiek ez diete uzten gizartean integratzen. Caritasera babes eta laguntza eske iristen diren pertsona eta familia askok egoera benetan lazgarriak bizi dituzte, epe labur eta ertainean nekez konpon daitezkeenak.

Testuinguru zail, mingarri eta, batzuetan, etsigarri horretan, ez dirudi pertsonen bizitzak eta bizi dugun gizarte-eredua nabarmen hobetuko direnik. Eta horrek guztiak etsipenera garamatza, eta ziurgabetasunak sortzen duen larritasunera.

ZENTZUA EMANGO DIGUN ITXAROPENAREN BILA

“Itxaropena bilaketa-mugimendu bat da. Eta agian, horrexegatik bultzatzen gaitu ezagutu gabeko inguruneetara, inoiz ibili gabeko eremuetara, irekitasunera, oraindik ez den horretara; izan ere, ez da izan den edo egun den horretan geratzen. Hau da, oraindik egiteke dagoen horren bila doa. Gauza edo sentipen berrien bila irteten da, guztiz desberdina den horren bila, inoiz existitu ez den horren bila[1]”.

Bizi garen garai honetan, premiazkoa da **gure mugimendua**. Ezin gara geldirik geratu, zerura begira[2], paralizatuta eta beldurrez, itxaropena eta irrika erreprimituta. Beldurrak miope eta indibidualista egiten gaitu; itxaropenak, berriz, ortzi-muga zabaltzen du, eta “gu” zabal eta eskuzabal batera garamatza.

Itxaropena ez da galtzen; pertseberantziaz etengabe bilatzen den zerbait da. Itxaropenak fede-ekintza bat dakar berekin, barru-barrutik konfiantza izatera bultzatzen gaituena, aurkitu ahal izateko, baina ezin gaitu geldirik utzi, dagoeneko ezagutzen dugun eta ziurtatuta dugun lurraldean finkatuta. Itxaropenak utopia-nahiari lotzen gaitu, eta gure gizatasunari atxikitako ametsik sakonenak lortzeko beharrari, hau da, zoriontasun-nahia, maitatzeko eta maitatuak izateko nahia, garatzekoa, eta osotasun betea lortzekoa.

Hala ere, “itxaropenari buruzko hizkuntza ez dagokie horri buruz hitz egiten dutenei, sufritzen dutenei baizik[3]”; horrenbestez, Caritasen eguneroko ekintzan, pobreenekin eta behartsuenekin egoteko misioan, itxaropena nola sortzen den ikusten dugu, oinazetik, pobreziatik eta sufrimendutik ernetzen, batzuetan ikusezina izan arren. Desira moduan sortzen da, borrokarako gogo moduan; hau da, aurrera ateratzeko eta bestelako bizitza bat —eskubideak berreskuratzea eta zauritutako giza duintasuna berrezartzea ekarriko dituena— lortzeko nahi eta ahaleginetik sortzen da itxaropena.

Hain zuzen ere, lagun egitean, sufritzen ari direnekin batera bidea egitean, bestearen minak eragindako haserreak, ezintasunak eta justizia-desira lortu ezinaren frustrazioak *zauritu eta mindu* egiten gaitu, eta *gutasun* bat izatearen itxaropenak forma hartzen du.

Erromesarekin egiten dugu bidea, aire zabalean berdinekiko harreman-modu berri bat bilatzen duenarekin, besteek —giza familia handi hau osatzen dugun beste guztiok— erakusten duten zaurgarritasunetik eta aukeratik abiatuta.

“Itxaropena sortzen duen sumindura-indar bat dago: gizagabetasunak, saihestu ahal izan arren min emateak edo errudun izatean minduta sentiarazteak gugan eragina badu, itxaropenerako bidea da[4]”. Bidegabekeriaren eta bestearen sufrimenduaren aurrean haserrea sentitzen denean, eta ezintasunez “ez dago eskubiderik” pentsatzean, bihotza hunkitu egiten da, eta itxaropena maitasun bihurtzen da, besteei ematen zaien maitasun.

---

[1] BYUNG-CHUL HAN, “Itxaropenaren espiritua”.
[2] *EGINAK* 1, 11.
[3] FCO. JAVIER VITORIA, Bilboko Elizbarrutiko presbiteroa.
[4] XIMO GARCIA ROCA.

PERTSONAK DAUDEN ARTEAN, ITXAROPENA IZANGO DA

“Maitasunak zehaztasuna, presentzia, elkarguneak, denbora eta espazioa behar ditu, dohaintzan emanak”; hala esaten zigun Frantzisko aita santuak. Benetako eta eguneroko presentzia izatera gonbidatzen gintuen, beti irteera-posizioan, beti gure inguruko beharrei adi. Gure bizitzaren benetako zentzua gure espazio partekatuan jartzen da jokoan, eta, kristauak izaki, gure fedearen praktikan eta Jesusen jarraipenerako konpromisoan.

Gure kontraesanak gorabehera, besteei eragin diezazkiekegun itzal guztiak gorabehera, pertsona guztiok dugu **argia izateko** gaitasuna. Bihotz bat dugu guztiok, norbaitek behar duenean hari laguntzera bultzatzen gaituena. Ez du axola ez gure ideologiak, ez gure jatorriak edo ohiturek, ez eta batzuetan urrun, enpatiarik gabe edo axolagabe agertzeak ere.

Hala ere, norbaitek eskua luzatu eta bihotza hunkitzen badigu, erantzun egiten dugu. Senaren antzeko zerbait da ia, gure gizatasun partekatuaren zentzua, sortuak garen jainkozko maitasun horren zentzua.

Denok gara pertsonak, eta senidetasun- eta elkartasun-haziak daramatzagu barruan, itxaropena zabaltzen duten eguneroko keinu eta ekintza txikien forman ernetzen direnak.

Birsortu baino ez ditugu egin behar, eta benetako bihurtzeko modu berriak aurkitu. Erresilientziaren, sormenaren eta lan kolektibo eta solidarioaren bidez, argia eman dezakegu gaur egun bizi dugun errealitateko itzal ilunen erdian.

Itxaropenerako bidea —jubileu-urte honetan kristinauentzat zentzu berezia hartzen duena— erromes-bide bilakatuko da, gizateriak berreskuratu behar duen itxaropena bilatzeko bide. Baina xedea ez da bilatzea soilik; hau da, lekuko izan nahi dugu, beren minari irtenbide bat aurkitzeko borrokan ari diren hainbat pertsonen **sufrimenduaren lekuko**, eta edozein arraza, leku edo baldintzatako pertsonen bitartez eskuzabaltasunez aritzen den Jainkoaren maitasunean konfiantza izan eta sinetsi nahi dugunok partekatzen dugun itxaropenaren lekuko.

Argiaren lekuko gisa bizitzeko unea da, hutsik egiten ez duen Jesu Kristo itxaropentzat aitortzeko unea, eta bideko zaurituei, itxaropengabeei, eta gose eta egarri direnei samurtasun-, arreta-, poz- eta konfiantza-seinaleak egitekoa.

Horrela, itxaropen beteko erromes ez ezik, itxaropenaren **enbaxadore** eta eramaile bihurtuko gara, eskuzabaltasun-, harrera- eta barkamen-keinu xumeak eginez.

Helburuak

- Besteak, batez ere gizarteko pertsona behartsu eta ahulenak, maitatzeko eta zerbitzatzeko dugun kristau-konpromisoaz jabetzea eta horri buruz gogoeta egitea.
- Kristau-elkartearen eta parrokien dimentsio soziala eta konpromiso soziokaritatetsua bultzatzea, inguruko beste talde, elkarte eta erakunde batzuekin sarean lan egitea sustatuta, eta komunitateko gainerako pertsonak sentsibilizatzea.
- Jesusek, Ebanjelioaren bitartez, hots egiten digun Berri Onak dakarkigun Itxaropenaren lekukotasuna ematea, eta misioan batzen gaituen senidetasuna ospatzea.

Zertarako material hau?

Gakoak eta orientabideak ematen ditugu kanpainaren helburuei buruz gogoeta egiteko eta Caritaseko eragileen misioaren zentzuan sakontzeko, bai eta gure gizarteko pertsona behartsu eta ahulenak *lagundu eta sustatu* eta haien eskubideak *defendatzeko* misioan duten konpromisoaren zentzuaz kontzientzia hartu eta gogoeta egin nahi duten pertsona guztientzat ere.

Gogoeta pertsonal eta komunitariorako jarraibide eta dinamikak eskaintzeaz gain, Karitatearen Eguna, Corpus eguna, anai-arreben komunitate gisa ospatzeko orientabideak ere ematen ditugu.

Gizarte-testuinguruaren analisi labur batetik abiatuta, aurtengo ospakizunaren leloa aurkezten dizuegu. Horixe erabiliko dugu hurrengo urteko Karitatearen Egunera arte.

Nola erabili material hau?

Edukiak hainbat baliabide edo ekintza prestatzeko balio dezake, hala nola parrokia-orria idazteko eta hitzaldi bat edo sentsibilizazio-tailer bat antolatzeko; parrokia-taldeen eta bestelako talde eta komunitateen bilerak antolatzeko ere balio dezake, gizarte-konpromisoaren eta pertsona behartsu eta ahulenei zerbitzua ematearen inguruan, hain zuzen ere.

Gogoetan lagungarri izan daitezkeen jarduerak ere proposatzen dira, bai eta parte-hartzea bultzatzeko keinu komunitario bat, eta otoitzerako eta ospakizunerako pista batzuk ere.

Baliabideak

Leloa: "PERTSONAK DAUDEN ARTEAN, ITXAROPENA IZANGO DA" mezu instituzionala erabiliko dugu 2026ko Karitate Egunera arte.

Kartela: Kanpaina parrokietan eta beste eremu publiko batzuetan zabaltzeko baliabidea.

Diptikoa: Kanpainaren ideia nagusiak aurkezteko dibulgazio-orri bat.

Bideoa: Ikus-entzuneko materiala, gutxi gorabehera minutu batekoa, kanpaina aurkezteko baliagarria izan daitekeena.

Irrati-iragarkia: irratietarako edo beste kanal batzuetarako.

Gazteentzako eta haurrentzako materiala: gazte-taldeak, katekesikoak, eta hezkuntza- edo parrokia-eremukoak dinamizatzeko eta sentsibilizatzeko baliabide bat.

Helduentzako materiala: esku artean duzun baliabide hau, Karitatearen Jardunaldia sustatzeko eta, ikasturtean zehar, taldeen prestakuntza- eta sentsibilizazio-saioetarako.

PERTSONAK DAUDEN ARTEAN, ITXAROPENA IZANGO DA